## **Guztiekin-guztietatik- guztiontzako kultura baterako oinarrizko osagaiak.**

Ingredientes básicos  
para una cultura  
con-desde-para todas.

*Artaziakoop*

**artaziakoop**

Duela hilabete baino gutxiago, Zubiak. Kultura eta ongizatea jardunaldien esparruan, elkarrizketetako batean parte hartzeko plazera izan genuen, kulturaren arloko beste profesional batzuekin batera. Plazer bat eta erronka handi bat izan zen, denbora tarte bat –erreal eta zuzenean– hartzea suposatu baitzuen, bizi dugun garai honetan geure buruan modu batera edo bestera darabilten galderei erantzunak ematen saiatzen, krisi sanitario eta sozial batek erasan gaituen garaia honetan, kontuan hartuta areagotu besterik ez dituela egin bitartekaritza kulturalaren esparruan lehendik ere aitortzen genituen premia eta ahulezia batzuk.

Hala, leku honetatik hitz egingo dugu testu honetan. Bitartekaritza kulturala, honela ulertua: aukeren espazio bat, jakintzak sortzekoa eta prozesu eraldatzaileak garatzekoa, artearen eta pedagogiaren espezifikotasunak gurutzatzen diren lekuan. Ibilbide luzeko lekua, hainbat erreferente, eztabaida eta esperientzia biltzen dituena.

Hace menos de un mes tuvimos el placer de participar en una de las conversaciones en el marco de las jornadas *Puentes. Cultura y bienestar*<sup>1</sup> junto con otras profesionales del ámbito de la cultura. Fue un placer y todo un reto, porque supuso dar un tiempo real y en directo a intentar dar respuestas a preguntas que de una forma u otra vienen rondando por nuestras cabezas durante este periodo que vivimos, atravesado por una crisis sanitaria y social que no ha hecho otra cosa que acentuar algunas de las necesidades y debilidades que ya reconocíamos anteriormente en el ámbito de la mediación cultural.

Es desde este lugar desde el que hablaremos en este texto. La mediación cultural entendida como un espacio de posibilidades, de generación de saberes y de desarrollo de procesos transformadores que surgen allí donde se cruzan lo específico del arte y la pedagogía. Un lugar de largo recorrido, referentes, debates y experiencias diversas.

*Kulturaren osasun onerako errezeta berriak?*

3. f. *Zerbaiten osagaiak zeintzuek izan behar duten eta nola egin behar den dioen oharra.*

4. f. *Zerbait egiteko edo lortzeko prozedura egokia.*

<https://dle.rae.es/receta>

Zaila egiten zaigu errezetak pentsatzea, gertatzen diren testuinguruan arreta jartzeko eskatzen duten praktiketarako. Izan ere, bitartekaritza praktika ezarritzat hartzen dugu, ingurunean parte izatea eta posizionatzea berekin dakarrena. Denbora luzeak bizitzea eta formatuak asmatzea, elkarrekin hausnartzeko espazioak sortzen lagunduko dutenak.

Dena den, “prozedura egokiak” bilatzeko ariketa honetan osagai jakin batzuk aurkitzen ditugu (ideiak, erreferentziak, jakintza espezifikokoak) gure praktikentzat oinarri bat sortzeko baliagarriak.

Bitartekaritza kulturalaren praktika bideratzeko nahien, helburuen eta norabideen zerrenda moduko bat litzateke, kasu honetan erakundeei eta haien

*Nuevas recetas para una buena salud de la cultura?*

3. f. *Nota que comprende aquello de que debe componerse algo, y el modo de hacerlo.*

4. f. *Procedimiento adecuado para hacer o conseguir algo.*

<https://dle.rae.es/receta>

Nos resulta difícil pensar en recetas para prácticas que reclaman una atención al contexto donde suceden. De hecho, entendemos la mediación como una práctica situada que implica participar del medio y posicionarse. Vivir tiempos largos e idear formatos que ayuden a crear espacios para la reflexión conjunta.

Sin embargo, en este ejercicio de búsqueda de “procedimientos adecuados”, sí encontramos ciertos ingredientes (ideas, referencias, saberes específicos) con los que crear una base en la que apoyar nuestras prácticas.

Sería algo así como un listado de deseos, objetivos, direcciones hacia las que orientar la práctica de la mediación

<sup>1</sup> [https://www.ondarebizia.com/wp-content/uploads/2021/10/21\\_Saio-Irekia\\_Programa.pdf](https://www.ondarebizia.com/wp-content/uploads/2021/10/21_Saio-Irekia_Programa.pdf)



politikei dagokienez. *Nolako izango litzateke orduan erakunde kultural osasungarri bat bere bitartekaritza-proposamenari dagokionez?*

### Erakunde DESPREKARIZATZAILEA

Erakunde batek bidezkoa izan behar du barrurantz eta kanporantz. Bere profesionalen bakoitzari lan-baldintza duinak finkatzetik hasita.

Pandemia garaian, hezitzaileen lana da museoetan alde batera utzi den lehen jardueretako bat. Oraindik ere, zerbitzu puntualtzat hartzen da publikoarentzat; ez, ordea, beste arlo batzuekin zeharkako elkarrizketan etengabe ari den erakundearen berezko zatitzat.

“Seguimos con el problema: la precariedad laboral de las educadoras y mediadoras culturales en el contexto del Covid-19”

<https://amecum.es/wp-content/uploads/2020/04/SEGUIMOS-CON-EL-PROBLEMA.pdf>

cultural, en este caso en relación a las instituciones y sus políticas. *¿Cómo sería entonces una institución cultural saludable en lo que a su propuesta de mediación se refiere?*

### Una institución DESPRECARIZADORA

Una institución debe de ser justa hacia dentro y hacia afuera. Comenzando por sentar unas condiciones laborales dignas a cada una de sus profesionales.

Durante la pandemia el trabajo de las educadoras es una de las primeras actividades de las que se ha prescindido en los museos. Se sigue considerando como un servicio puntual al público y no como parte intrínseca de la institución que está en continuo diálogo transversal con otras áreas.

“Seguimos con el problema: la precariedad laboral de las educadoras y mediadoras culturales en el contexto del Covid-19”

<https://amecum.es/wp-content/uploads/2020/04/SEGUIMOS-CON-EL-PROBLEMA.pdf>

### ZAINTZEN duen erakunde

Zer jartzen da erdigunean, zainketak edo kapitala? Erakunde batek erdigunean jartzen dituen bisita-kopurua, erakusketa-kopurua... beste alderdi batzuetara lekualdatzen du interesgunea. Beharizan desberdinei erantzutea, harremanen kalitatearen alde apustu egitea, eta lotura iraunkorrak ezartzea, edo denborak, espazioak eta baliabideak ematea ikaskuntzak eman daitzen. Jakin badakigu erabaki arriskutsua dela, museoak baliabide baitira orain arlo ekonomikoaren kudeaketa bideratutako politikentzat. Horrela bada, modu zaindu batean egitea proposatzen dugu, prozesuekin, harre-egiturekin eta hori ahalbidetuko duten baldintza materialekin lagunduta.

*Erakundearen eskalak zehazten du zaintzeko gaitasuna. Zenbat eta handiagoa, orduan eta zailagoa da zaintzea. Dimentsioak birpentsa ditzakegu. Pandemian behera egin duten zenbakiak ez digute ziurtatzen orain zaindu ahal izango dugunik. Pandemia gainditzen denean, jende gehiago egongo da berriro.*

### Una institución que CUIDA

¿Qué se pone en el centro, los cuidados o el capital? Cuando una institución pone en el centro el número de visitas, la cantidad de exposiciones... desplaza a otros aspectos del foco de interés. Tareas como atender a las diferentes necesidades, apostar por la calidad de las relaciones y establecer vínculos duraderos, o dar tiempos, espacios y recursos para que se den los aprendizajes. Sabemos que se trata de una determinación arriesgada en un momento en el que los museos son un recurso para las políticas orientadas también a la gestión de lo económico. De ser así, proponemos hacerlo de manera cuidada, acompañando los procesos, con estructuras de acogida y unas condiciones materiales que lo permitan.

*La escala de la institución determina la capacidad de cuidar. Cuanto más grande, más difícil es cuidar. Podemos repensar las dimensiones. Los números que han caído en la pandemia no nos aseguran que ahora sí que podamos cuidar. Cuando la pandemia pase, volverá a haber más gente.*

Fran MM Cabeza de vaca.  
“¿Cuida la institución cultural?”  
Erro(re)tik mintegia - Tabakalera  
(Maiatza 2020)

<https://vimeo.com/545360529>

### Erakunde IREKIA

Bere buruari zerbaitek eragiten uzten dion erakundea, barrutik kanporako norabide bakarreko joera ez duena, parte ez den eta bere laguntza eta ezagutza aditua behar duen hori aldatzeko edo hobetzeko asmoarekin. Erakundeak bere testu-gurua ezagutu eta ulertu behar du, eta bere komunitatearen parte izan behar du.

*“Museoak pentsatu behar du zein den bere komunitatea. Ez jabetza gisa, baizik eta hutsune gisa, zor gisa. Batzen gaituen zeregin partekatu bat edukitzearen ideia.”*

Fran MM Cabeza de vaca  
“¿Cuida la institución cultural?”  
Erro(re)tik mintegia - Tabakalera  
(Maiatza 2020)

<https://vimeo.com/545360529>

Fran MM Cabeza de vaca.  
“¿Cuida la institución cultural?”  
Seminario erro(re)tik - Tabakalera  
(Mayo 2020)

<https://vimeo.com/545360529>

### Una institución PERMEABLE

Una institución que se deja afectar, que no se dirige de manera unidireccional de dentro a afuera con la idea de cambiar o mejorar aquello de lo que no forma parte y que requiere de su ayuda y conocimiento experto. La institución debe conocer y entender el contexto en el que se sitúa, y formar parte de su comunidad.

*“El museo debe pensar en cuál es su comunidad. No como propiedad, sino como un vacío, una deuda. La idea de tener una tarea compartida que nos une.”*

Fran MM Cabeza de vaca  
“¿Cuida la institución cultural?”  
Seminario erro(re)tik - Tabakalera  
(Mayo 2020)

<https://vimeo.com/545360529>

### Erakunde ASKOTARIKOA, HABITATUA ETA guztiek eta guztientzat ERABILTZEKOA

Beste gobernantza-eredu batzuk esperimentatzeko lekua, sorkuntza-laboretegietan garatzen ari direnak, besteak beste. Museoa berak kategorizatu dituen kolektiboetara zuzentzen zaielako ideari azkena ematen badiogu, eta erakundea guztiontzako leku bat delako ideia zabaltzen badugu, guztiok eutsia, guztiok toki bat dugun lekua, orduan, baterako kudeaketa-guneak ireki daitezke, adibidez, museoaren programazioa bera eztabaidatzeko.

*Egiten dugunaren zati handi baten zentzua sarbidea erraztea da. Harinera bezalako programazio gutxi sustatzen dugu. Jendeak guri jarduerak proposatzeko egiten dugun deialdi ireki batetik pasatzen da ia guztia. Orduan dena alda daiteke erroetik.*

*Harinera ZGZ, experimentando la gestión compartida. Jordi Oliveras*

<https://www.poliedrica.cat/es/harinera-zgz-experimentando-la-gestion-compartida>

### Una institución DIVERSA, HABITADA Y DISPONIBLE por y para todas

Un lugar para experimentar otros modelos de gobernanza como los que se están dando en los laboratorios de creación. Si rompemos con la idea de que el museo se dirige a colectivos que ella misma ha categorizado, y abrimos la idea de que la institución es un lugar para todas, sostenido por todas, donde todas tenemos cabida, se pueden abrir espacios de co-gestión donde discutir, por ejemplo, la misma programación del museo.

*El sentido de mucho de lo que hacemos es facilitar el acceso. Promovemos muy poca programación como Harinera. Casi todo pasa por una convocatoria abierta que hacemos para que la gente nos proponga actividades. Entonces todo puede cambiar radicalmente».*

*Harinera ZGZ, experimentando la gestión compartida. Jordi Oliveras*

<https://www.poliedrica.cat/es/harinera-zgz-experimentando-la-gestion-compartida>

**Erakunde PENTSAKORRA, ENTZUTEN duena eta AUTOKRITIKA egiten duena**

Historikoki, erakunde kulturalak ahots pribilegiatu bat izan dira gizartean kultura deitzen dioguna eraikitzeko, eta hortik sortzen dira gure bizitzak, gorputzak eta nahiak arautzen dituzten imaginario hegemonikoak. Horregatik, hartzen duen botere-eremuaz jabetuta, ahots pribilegiatu horrek nola funtziona dezakeen galdetu beharko lioke bere buruari, eta, batez ere, espazio neutro baten itxura hartzeko asmoa alde batera utzi beharko luke.

*(...) Kultura-politika inklusiboak pentsatu behar ditugu... Zer gertatzen da proiektuen open call bat dagoenean "herritarrei" zuzendua? Zer talde geratzen dira estatus horretatik kanpo?...*

Iki Yoos Piña Narvaez Funes  
En torno al mito de la democracia racial  
Kultura eta Herritartasuna Topaketa  
- Tabakalera 2021

[https://www.youtube.com/watch?v=\\_tX-maXc2zY](https://www.youtube.com/watch?v=_tX-maXc2zY)

**Una institución REFLEXIVA, que ESCUCHA y que hace AUTOCRÍTICA**

Las instituciones culturales han sido históricamente una voz privilegiada en la construcción de lo que socialmente denominamos cultura, desde donde se generan los imaginarios hegemónicos que regulan nuestras vidas, cuerpos y deseos. Por ello, siendo conscientes del lugar de poder que ocupa, debería preguntarse cómo hacer funcionar esa voz privilegiada y, sobre todo, debería abandonar la idea de querer aparentar ser un espacio neutro.

*(...) Tenemos que pensar políticas culturales inclusivas... ¿qué pasa cuando hay un open call de proyectos que se dirige a la "ciudadanía", ¿qué cuerpos se quedan fuera de ese estatus?...*

Iki Yoos Piña Narvaez Funes  
En torno al mito de la democracia racial  
Encuentro de Cultura y Ciudadanía  
- Tabakalera 2021

[https://www.youtube.com/watch?v=\\_tX-maXc2zY](https://www.youtube.com/watch?v=_tX-maXc2zY)

**Erakunde TEKNIFIKATUA (pentsamendu kritiko eta kolektibotik)**

Presentziala eta digitala aurrez aurre jartzen ez dituen erakunde bat. Museoen beren baliabideak optimizatzeko dimensio digitala txertatzen dutenean sortzen da arazoa, eta helburua da bisitari gehiagorengana iristea... Gutxi dira baliabide horiek norantz bideratu kolektiboki baloratzeko sortzen diren eztabaidaguneak.

Bitartekaritza digitaletik lan egiteak pentsamendu teknologikoan oinarritutako lan-ereduak esperimendu ahalizatea dakar, besteak beste. Bitartekaritza digitalak bitartekaritza kulturalaren aukerak zabaltzen ditu.

*Bitartekaritza kultural digitalak, COVID-19aren krisiaren eskutik sortu ez bada ere, agerian utzi du bere ikerketa zabaltzeko premia, bitartekaritza kulturalaren eremuak zabaltzen lagunduko diguten tresnak sortuz mundu hiperkonektatu eta berehalako batean, non errealitateak/birtualtasunak gero eta zentzu gutxiago duen.*

Sobre la mediación cultural digital. Desmusea  
<https://www.poliedrica.cat/es/sobre-la-mediacion-cultural-digital/>

**Institución TECNIFICADA (desde el pensamiento crítico y colectivo)**

Una institución en la que no se enfrente lo presencial con lo digital. El problema surge cuando los museos incorporan la dimensión digital para optimizar sus recursos, teniendo como fin la expansión, llegar a un número mayor de visitantes... Son escasos los espacios de discusión que se crean para valorar de manera colectiva hacia dónde orientar estos recursos.

Trabajar desde la mediación digital, en realidad, supone, entre otros, poder experimentar modelos de trabajo basados en el pensamiento tecnológico. La mediación digital amplía las posibilidades de la mediación cultural.

*La mediación cultural digital que, si bien no ha nacido de la mano de la crisis del COVID-19, sí que ha puesto de manifiesto la necesidad de ampliar su investigación, creando herramientas que nos ayuden a ensanchar los campos de la mediación cultural en un mundo hiperconectado e inmediato, en el que cada vez tiene menos sentido la confrontación realidad/virtualidad.*

Sobre la mediación cultural digital. Desmusea  
<https://www.poliedrica.cat/es/sobre-la-mediacion-cultural-digital/>

07

**Sarerik ez dago bizirik  
dagoena baino.**

*No hay más red que  
la que está viva.*

*Nekane Aramburu*

**Kultur kudeatzailea eta museologa.**  
*Gestora cultural y museóloga.*

Askotan aurrekusi ezin diren kanpoko gorabeheren mende egonik, kulturak gizarte garaikidearen zaugarritasuna areagotzen du. Erakusketak, jarduerak, programak eta jaialdiak, joan eta etorri egiten dira, erresistentzia ameslariaren, zori politikoaren, presio ekonomikoaren eta, gaur egun, COVID-19ari lotutako presio pandemikoen artean.

“Eskubide kulturalak” terminoa 1948ko Giza Eskubideen Adierazpenaz geroztik hedatu zen, II. Mundu Gerraren ondoren, hain zuzen. Hainbat teoriko eta adituk aztertu zuten, eta pixkanaka beste termino batzuekin definitu zuten, besteak beste: *Eskubideen Aroa edo Ziurgabetasunaren Aroa*<sup>1</sup>.

Bitartean, egoera gogorak gorabehera, bizirik irtenda ikusi ditugu bilduma garrantzitsuak babesten zituzten erakundeak, eta aitzitik, aurrekontu altuekin ahaldunduta balio hutsal batetik eratu zen hura; *influencer* arbitrarioriek, zirkunstantzialitatean goratutako

Sometido a fluctuaciones externas muchas veces imprevisibles lo cultural replica la vulnerabilidad de la sociedad contemporánea. Exposiciones, actividades, programas y festivales, van y vienen, entre la resistencia visionaria, el azar político, las presiones económicas, y actualmente las pandémicas vinculadas al COVID-19.

El término “Derechos culturales” viene a extenderse a partir de la Declaración de los Derechos Humanos en 1948 justo después de la II Guerra Mundial siendo analizado por diversos teóricos y especialistas quienes lo fueron progresivamente definiendo con otros términos como *La Edad de los Derechos* o *La Era de la Incertidumbre*<sup>1</sup>.

Mientras, hemos visto sobrevivir entidades que salvaguardaban colecciones relevantes a pesar de circunstancias adversas, y al contrario, empoderar con altos presupuestos aquello que se había constituido desde el valor superficial

balio hipotetikoaren arabera, emandako balioa, alegia. Aholkularitzen eta autorretzen, espekulazioaren eta transzendentzia-grinaren arteko mugek agerian uzten dituzte beren fisurak. Horregatik, ondarearen arloko praxian eta kulturaren arloko kudeaketan orbitatzen duten sistema desberdinetarako aparteko aldaketa batzuen lekuko izaten ari gara. Ñabardura horietan murgiltzeko adibide bat Juan Antonio Ramirezen *Ecosistema y explosión de las artes* liburu mitikoa da, non irakasle eta teoriko bikainak arte nagusiaren sistema osatzen duten geruzen –piramidalak beti– azterketa sarkastiko bat egiten duen. Bere hausnarketa zuzen eta pedagogikoen erakusten dutenez, “Hainbeste agente, egitura narratibo, eredu ideologiko, pultsio ikoniko/objektibo eta generoren presio ahalmentsuak gehiegi berotu du diziplinaren materia”<sup>2</sup>. Ondoren analisi bera egiten du Pablo Helguera bere *Artoons*<sup>3</sup>ekin, bisualki aditzera emanda artearen munduan errepikatzen diren

aportado por *influencers* arbitrarios según hipotéticos valores alzados en la circunstancialidad. Las fronteras entre asesorías y autorías, especulación y afán de trascendencia evidencian sus fisuras. Por ello, estamos siendo testigos de unos cambios excepcionales para los diferentes sistemas que orbitan en la praxis patrimonial y la gestión cultural. Un ejemplo para adentrarnos en estos matices lo encontramos en aquel mítico libro *Ecosistema y explosión de las artes* de Juan Antonio Ramírez donde el brillante profesor y teórico realiza un sarcástico análisis de los estratos -siempre piramidales- que constituyen el sistema del arte dominante. Sus reflexiones directas y pedagógicas vienen a mostrar cómo “la presión poderosa de tantos agentes, estructuras narrativas, modelos ideológicos, pulsiones icónico-objetuales y géneros, ha sobrecalentado la materia de la disciplina”<sup>2</sup>. Algo que así mismo diseccionará posteriormente Pablo Helguera con sus *Artoons*<sup>3</sup>,

<sup>1</sup> José Teixeira Coelho Netto teorikoak 2005eko maiatzaren 19an Argentinako Centro Cultural España Córdoba-n eman zuen hitzaldian *Brindando concreción a los derechos culturales* izenburupean, John Kenneth Galbraith ekonomialari ingelesak *Ziurgabetasunaren aroari* buruz egindako ekarpenak azpimarratu zituen, baita Norberto Bobbioren hausnarketak eta Ulrich Beck eta Anthony Giddensek *Arriskuaren Aroari* buruz egindakoak.

<sup>1</sup> En su conferencia del 19 de mayo de 2005 en el Centro Cultural España Córdoba (Argentina) bajo el título *Brindando concreción a los derechos culturales* el teórico José Teixeira Coelho Netto, incide en las aportaciones del economista inglés John Kenneth Galbraith sobre la *Era de la Incertidumbre*, las consideraciones de Norberto Bobbio o las de Ulrich Beck y Anthony Giddens respecto a la Edad del Riesgo.

<sup>2</sup> Ramírez, Juan Antonio. *Ecosistema y explosión de las artes*. Barcelona: Editorial Anagrama, 1994. 144. or.

<sup>3</sup> Pablo Helguera artistaren eta MoMAko hezkuntza-programaren arloko zuzendariaren *Artoons*ak hasiera batean Artworldsalon.com-erako egin ziren 2009an, New Yorker egunkariako cartoonsetan oinarrituta.

<sup>2</sup> Ramírez, Juan Antonio. *Ecosistema y explosión de las artes*. Barcelona: Editorial Anagrama, 1994. 144. or.

<sup>3</sup> *Los Artoons* del artista y director del área de programas educativos del MoMA, Pablo Helguera fueron realizados inicialmente para Artworldsalon.com en 2009, basándose en los cartoons del New Yorker

egoerak, bestalde beste edozein sistema profesionaletan aplika daitezkeenak.

Atzera begiratuko dugu behaketa enpirikotik: zifrak eta anomaliak nabarmentzen dira, jasan ezinekoak balio zientifiko edo akademikoetatik; kulturaren, berriz, dirudienez ez dute garrantzirik ustekabearen eta inprobisazioaren faktoreek. Horregatik, kultura bezalako lurralde hain hauskor batean, funtsezkoa da kalitatezko eta eraginkortasuneko baremo zorrotzetatik abiatuta eraikitako aliantzak ehuntzeko aukera emango duten egituretan sartzea. Label edo berme-ziurtagirietatik harantz, dela erakundeetatik, dela kudeaketa independentetik abiatuta, ezagutza- eta truke-plataformak lortzeko konexioak kanal eraginkorrak dira, gorabeheratsuak badira ere.

Sareei buruz hitz egiteak nahitaez errizomaren kontzeptuan pentsatzera garamatza; zerbait organikoa, aldakorra, tentakularra, hierarkiarik ezatik eta bidezko eredu horizontalak eratzeko premia sortua. Gilles Deleuzek eta Félix Guattarik azpimarratzen zituzten errizoma horiek, anizkoiztasunagatik edo anti-genealogiagatik bereizten den

plasmando visualmente reiteradas circunstancias del mundo del arte aplicables por otra parte a cualquier otro sistema profesional.

Volvemos la vista atrás desde la observación empírica: saltan cifras y anomalías que no hubieran sido soportables desde valores científicos o académicos mientras que en cultura parece como que no importaran los factores de imprevisibilidad e improvisación. Por eso, en un territorio tan frágil como el cultural, la inserción en estructuras que permitan tejer las alianzas construidas a partir de estrictos baremos de calidad y eficiencia, de rigurosidad tanto profesional como emocional, es fundamental. Más allá del label o los certificados de garantía, sea desde las instituciones o a partir de la gestión independiente, las conexiones para la consecución de plataformas de conocimiento e intercambio constituyen canales que no por fluctuantes dejan de ser eficaces.

Hablar de redes remite necesariamente a pensar en el concepto de rizoma, algo orgánico, cambiante, tentacular, concebido desde la ausencia

kontzeptu filosofiko gisa, desberdinak dira Juan Antonio Ramirezek eta Pablo Helguerak agerian uzten dituzten egitura itxi haien aldean.

Sare profesionalak esfera asoziatibo irekiak dira, iragazkortasuna errazten dutenak. Hainbat alderditatik haiekiko atxikipenak ere bateragarriak dira elkarren artean. Gurutzaketa, mestizaje eta sinergia komunen bidez kateatzen dira. Hala, sare horietako batzuk oso ezagunak dira, esaterako Museoen Nazioarteko Kontseilua -ICOM-, 1946tik jardunean. Espainiako estatuan, berriz, arteari eta kudeaketa kulturalari lotutako hainbat sistema eratzen joan dira, hurbileko lotura lokaletatik abiatuta. Esperientziak alderatuta, egitura desberdinetan nodulu aktibo gisa inskribatzea erabaki zuten. Hori 1990eko hamarkadaz geroztik gertatu da batez ere. 1994an, Gasteizko Kultur Etxean egindako lehen topaketa bati esker Arte Sarea sortu zen, eta Espainiako estatuko espazio eta kolektibo independenteak lotu ziren, Trans Europe Halles sare europarrarekin eta NAAO sare iparramerikarrarekin konektatu zirenak. Bitartean, paraleloan eta garai hartan Interneteko baldintza liberatu berriek emandako

de jerarquía y por la necesidad de configurar modelos horizontales equitativos. Esos rizomas sobre los que incidían Gilles Deleuze y Félix Guattari como concepto filosófico caracterizado por su multiplicidad o anti-genealogía son diferentes de aquellas estructuras cerradas que evidencian Juan Antonio Ramirez y Pablo Helguera.

Las redes profesionales constituyen esferas asociativas abiertas que facilitan la permeabilidad. También las adscripciones a ellas desde diferentes vertientes, son compatibles entre sí. Se encadenan por cruces, mestizajes y sinergias comunes. Algunas de estas redes son tan conocidas como el Consejo Internacional de los Museos -ICOM- el cual funciona desde 1946. Mientras en el Estado español se han ido configurando diferentes sistemas vinculados al arte y la gestión cultural, a partir de vínculos locales de proximidad. Confrontando experiencias, decidieron inscribirse como nódulos activos en diferentes estructuras. Esto ha sucedido principalmente desde los años noventa. En 1994 gracias a un primer encuentro en la Casa de Cultura de Vitoria-Gasteiz se forjó la Red Arte

aukeren aurrean, arte elektronikoen ikerketako albiste-taldeek edo egiturek, profesionalen eskariz -José Luis Brea, besteak beste- Aleph, Eco eta Air aktibatzea ahalbidetu zuten. Aldi berean, jardunean hasiak ziren autonomia-erki-degoetako artisten elkarte profesionalak: UAAV (Artista Bisualen Elkartearen Batasuna) 1996tik, FEAGC (Kudeatzaile Kulturalen Elkartearen Estatuko Federazioa) (1999), Arte Garaikideko Galerien Partzuergoa (2003), IAC (Arte Garaikideko Institutua) (2004), ADACE (Espainiako Arte Garaikideko Zuzendarien Elkarte) (2005), Arte Bisualetako Kritikarien eta Komisarioen Kontseilua (2005), MAV (Emakumeak Arte Bisualak) (2009) eta 9915 (Arte Garaikideko Bildumagile Privatuen Elkarte) (2013)<sup>4</sup>.

Talde horiek, adibidez, beste konpromiso batzuen artean, Jardunbide Egozien Kodea aplikatzea eta garatzea lortu zuten, 2006an onartua, azpiegitura instituzionalen kudeaketan injerentzia politikoei azkena emateko hausnarketa berriak bultzatuz. Zuzendaritza-batzordeak eta lan-taldeak ordezkaturak, negozio-plataformak garatzen dituzte erakundeekin, eta txostenak egiten dituzte, horietako batzuk *Arte Garaikidearen*

vinculando a espacios y colectivos independientes del Estado español quienes se conectaron a su vez con la red europea Trans Europe Halles y la norteamericana NAAO. Mientras, en paralelo y ante las posibilidades otorgadas por las entonces recién liberadas condiciones de internet, grupos de noticias o estructuras en la investigación del arte electrónico a instancias de profesionales como José Luis Brea permitieron activar Aleph, Eco y Air. En paralelo ya estaban en marcha las diferentes asociaciones profesionales de artistas de diferentes comunidades autónomas. “La UAAV. Unión de Asociaciones de Artistas Visuales desde 1996, la FEAGC- Federación Estatal de Asociaciones de Gestores Culturales (1999), el Consorcio de Galerías de Arte Contemporáneo (2003), IAC. Instituto de Arte Contemporáneo (2004), ADACE. Asociación de Directoras y Directores de Arte Contemporáneo de España (2005), Consejo de Críticos y Comisarios de Artes Visuales (2005), MAV. Mujeres Artes Visuales (2009) y la Asociación de Coleccionistas privados de Arte Contemporáneo 9915 (2013)”<sup>4</sup>.

Estas agrupaciones, por ejemplo,

*Mahai Sektorialetik* arazo komunengan aurrera egiteko.

Hainbat gai, besteak beste, Estatuko Gizarte Segurantzak arteari lotutako langile autonomoen egoera berrikus-teko premia izan da Kataluniako Artista Bisualen Elkarteak (AAVC) eta Artistes Visuals de València, Alacant i Castelló (AVVAC) elkarteak 2021ean egindako azken topaketetako eztabaida eta aldarrikapenetako bat. Auzi horri, bestalde, hamarkada batzuk lehenago heldu zioten 1970eko hamarkadako zenbait taldek, haien artean, Madrilgo Artista Plastikoen Elkarteak; haien asmoa sindikatu bat sortzea zen, Artista

lograron, entre otros compromisos, el desarrollo y aplicación del Código de buenas prácticas aprobado en 2006 impulsando nuevas consideraciones para el fin de las injerencias políticas en la gestión de infraestructuras institucionales. Representados por sus juntas directivas y grupos de trabajo, desarrollan plataformas de negociación con las instituciones y elaboran informes para avanzar sobre problemáticas comunes algunas de ellas desde la denominada *Mesa sectorial del Arte Contemporáneo*.

Cuestiones como la necesidad de revisar las circunstancias de los trabajadores

<sup>4</sup> Aramburu, Nekane *Alternativas. Políticas de lo Independiente en las artes visuales*. Murcia: Cendeac, 2020. 616. or. Liburuan hainbat saretako dinamiken funtzionamendua deskribatzen da, besteak beste, Artisten Elkartearen Batasuna, milurtekoaren hasieran guztira 3.500 bazkide inguru biltzen zituena. Espainiako Arte Garaikideko Zuzendarien Elkarte (ADACE) museotako eta arte-zentroetako zuzendaritzako 52 profesionalak osatzen dute gaur egun. 2005ean sortutako elkarte hau Espainiako estatuko arte garaikideko museoek eta zentroek duten funtzioari buruzko hausnarketa eta hedapen-plataforma bat da, beren kudeaketa-ereduak, lan-metodoak eta tresnak edo finantzaketa-iturriak, besteak beste, funtsezkoak dira kultura-azpiegitura horiek behar bezala funtzionatzeko. IAC Arte Garaikideko Institutuak sektoreen arteko proposamen bat egin zuen 2004an “artearen egoera aztertzeko”, eta José Jiménez izan zen lehen presidentea. Bestalde, sortu zenetik, Emakumeak Arte Bisualak (MAV) taldearen txostenak nabarmentzen dira, artearen sektoreko desberdintasuna salatzen dutenak.

<sup>4</sup> Aramburu, Nekane *Alternativas. Políticas de lo Independiente en las artes visuales*. Murcia: Cendeac, 2020. p. 616. En el libro se describe el funcionamiento de las dinámicas en redes como La Unión de Asociaciones de Artistas quienes en total a primeros del milenio aglutinaban a unos 3.500 asociados. La Asociación de Directoras y Directores de Arte Contemporáneo de España (ADACE) está integrada a día de hoy por 52 profesionales de la dirección de los museos y centros de arte. Esta asociación creada en 2005 es una plataforma de reflexión y difusión sobre la función de los museos y centros de arte contemporáneo en el Estado español, sus modelos de gestión, métodos y herramientas de trabajo o fuentes de financiación entre otras cuestiones esenciales para el adecuado funcionamiento de estas infraestructuras culturales. IAC Instituto de Arte Contemporáneo se planteó con carácter intersectorial para “estudiar el estado del arte” en 2004 siendo su primer presidente José Jiménez. Por otra parte, desde su creación destacan los informes de Mujeres artes visuales (MAV) denunciando la desigualdad en el sector del arte.

Plastikoen Estatutu Profesionala<sup>5</sup> lantzeko errebindikazioekin. Asanbladen eremuan horizontalean aurrera egiteak posizionamendu-denbora luzeak eta pazientzia handiko negoziatioak eskatzen ditu. Gainera, kezkak partekatzen dituen talde-lan horren heldutasuna komunikazioaren “teknologia berriak” deitutakoek ahalbidetu dute. Estrategikoki pentsatzeko unean uneko trukeak gainditzen dira, eskalen eta aukeren zailtasunak gorabehera. Pandemiak areagotu egin ditu eskaera horiek, eta bere inaktuak bide eman du aukera presentzial eta birtual berriak praktikatzeko.

Horiek ziren, *Redes. Luces y sombras* izenburupean, 2021eko azaroaren 25eko mahai-inguruan antolatutako eztabaidarako arranpetako batzuk. Bertan, esperientziak, zalantzak eta etorkizuneko aukerak trukatu zituzten nazioko eta nazioarteko hainbat saretako ordezkariak. Etorkizunean gerta daitekeena orain da. Hala, Boris Groysen azken argitalpenean, La Virreina arte-zentroko (Bartzelona) *Thinking in Loop* erakusketari dagokionez, honako hau dio:

autónomos del arte por parte de la Seguridad Social del Estado ha sido parte de los debates y reivindicaciones de los últimos encuentros en 2021 de la Asociación de Artistas Visuales de Cataluña (AAVC) y la Artistes Visuels de València, Alacant i Castelló (AVVAC), algo que, por otra parte, ya se venía trabajando décadas atrás desde agrupaciones precedentes de los setenta como la Asociación de Artistas Plásticos de Madrid quienes intentaron crear un sindicato con las reivindicaciones para la elaboración del Estatuto Profesional del Artista Plástico<sup>5</sup>. Avanzar en lo assembleario horizontal requiere largos tiempos de posicionamientos y pacientes negociaciones.

La madurez de este trabajo colectivo compartiendo inquietudes se ve además posibilitada por las llamadas “nuevas tecnologías” de comunicación. Se trasciende los intercambios puntuales para pensar estratégicamente, pese a las dificultades de escalas y posibilidades. La pandemia ha intensificado estas demandas y su impacto ha

“Garai batean, museoak, artearen leku tradizional gisa, lehia handia izan zuen komunikabideen aldetik; orain, berriz, gero eta gehiago ikusten da gaindituztat, eta hedabideen senide behar-tutzat hartzen da” (...). Joanak dira museoan arte-forma “alternatiboen” aurkezpena erabateko gertaera mediatiko gisa ikusten zen garaiak”<sup>6</sup>

Jakina, ingurune sozialarekin, publikoarekin eta solaskideekin harremanak izateko moduak azkar aldatzen ari dira, eta horrek eragina du kultura-sektorean eta haren erabiltzaileengan. Erronka horiek lotutako lan-prozesuetan eragiten dute, eta prozedurak eta protokoloak aldatzea dakarte. Gero eta gertuago gaude lankidetzan oinarritutako formula berriak inplementatzetik eta elkarrekin konektatuta –elkarren artean eta beren hartzaileekin– bizkor mugitzeko gai diren sistemak berasmatzetik, eta horrek beren konfigurazioa eta biziraupena ekarriko du berekin. Aldaketei adi, beren sintonien maiztasuna eta intentsitatea baitira gaur egungo sareen indarra.

permitido practicar nuevas opciones presenciales y virtuales.

Estos eran algunos de los vórtices de discusión que planearon en la mesa redonda del 25 de noviembre de 2021 englobada bajo el título *Redes. Luces y sombras* en la que representantes de diferentes redes nacionales e internacionales intercambiaron experiencias, dudas y opciones de futuro.

Lo futurible es presente. Así en la última publicación de Boris Groys a propósito de la exposición *Thinking in Loop* en el Centro de Arte La Virreina (Barcelona) éste afirma: “en un tiempo en el que el museo, como lugar tradicional del arte, experimenta una fuerte competencia por parte de los medios de comunicación, es percibido cada vez más como algo superado y se lo tiene por un pariente pobre de los medios (...) Ya han pasado los tiempos en que la presentación en el museo de formas de arte “alternativas” se consideraba todo un acontecimiento mediático”<sup>6</sup>. Evidentemente las formas de relación

<sup>5</sup> Arribas, María José. *40 años de arte vasco, 1937-1977: historia y documentos*. Donostia: Erein, 1979. 37. or.

<sup>5</sup> Arribas, María José. *40 años de arte vasco, 1937-1977: historia y documentos*. Donostia: Erein, 1979. 37. or.

<sup>6</sup> Groys, Boris. *La lógica de la colección*. Bartzelona: Atmarcadia, 2021. 9. or.


<sup>6</sup> Groys, Boris. *La lógica de la colección*. Bartzelona: Atmarcadia, 2021. 9. or.



**Nekane Aramburu** kultura-kudeatzailea, museologoa eta saiakeragile teorikoa da. Orain bere doktoretza tesia garatzen ari da Diziplina arteko Estrategia Zientifikoak Ondarean eta Paisaia lanean, UPV/EHU.

con el entorno social, públicos e interlocutores están transformándose aceleradamente, lo cual afecta al sector cultural y sus usuarios. Estos retos inciden en los procesos de trabajo asociados y conlleva un cambio de procedimientos y protocolos. Estamos abocados hacia una implementación de nuevas fórmulas basadas en la cooperación y la reinención de sistemas capaces de moverse conectados - entre sí y con sus receptores- ágilmente, algo que será consustanciales a su propia configuración y supervivencia. Atentas a los cambios, la frecuencia e intensidad de sus sintonías son la fuerza de las redes que hoy existen.

**Nekane Aramburu** es gestora cultural, museóloga y ensayista teórica. Actualmente desarrolla su tesis en el doctorado en Estrategias Científicas Interdisciplinarias en Patrimonio y Paisaje EHU/UPV.



Eragilea Promueve:



Babeslea Patrocina:



KULTURAREN ARDURITZA  
POLITIKA BARRA  
Kultura Osoarenak: Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA  
Dirección de Patrimonio Cultural

Laguntzailea Colabora:



Udako Kudeaketa  
Planen Zuzendaritza  
Programa de Planificación  
Anual



ETORKIZUNA ORAIN  
IN FUTURO